

GORBEIALDEKO KUADRILLAKO UDALERRIETAKO JAIEN DIAGNOSTIKOA, GENEROAREN IKUSPEGITIK



Egilea:

Sortzen  consultoria s.l.

Finantzatzaileak:

 **EMAKUNDE**
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

araba  **álava**
foru aldundia diputación foral

Laia 

AURKIBIDEA

1. KONTZEPTU-ESPARRUA	6
1.1. Tokiko jaien garrantzia genero-ikuspegitik	6
1.2. Jaietan hautemandako genero-desberdintasunen testuingurua	7
1.3. EAEn berdintasunezko jaiak lortzeko erakunde publikoetan hobetu beharreko alderdiak	9
2. HELBURUAK	13
2.1. Helburu orokorra	13
2.2. Berariazko helburuak	13
3. METODOLOGIA	13
4. GORBEIALDEKO KUADRILLA, GEOGRAFIA- ETA BIZTANLERIA-DATUAK	16
5. GORBEIALDEKO KUADRILLAKO JAIEN EZAUGARRIAK	18
5.1. GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BERDINTASUN ZERBITZUA	18
5.1.1. Aurrekariak	18
5.1.2. Zerbitzuaren eragina jaietan	20
5.1.3. Eraso matxistak jaietan eta erantzuna Berdintasun Zerbitzutik.....	21
5.2. AZTERTUTAKO JAIAK	21
5.3. CONTENIDOS PRINCIPALES DE LAS FIESTAS	26
5.3.1. Maskulinitasunaren eta feminitatearen adierazpenak jaietan	26
5.3.2. Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzak	29
5.3.3. Jaietan antzemandako eraso matxistak eta erantzuna	32
6. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	39
6.1. Ondorioak	39
6.2. Gomendioak	40
7. ERANSKINAK	42
1. ERANSKINA Teknikariek eta gizarte eragileek aurkeztutako agiriak	42
8. BIBLIOGRAFIA	43

FITXA TEKNIKOA

Ekintzaren eskatzailea	Gorbeialdeko Kuadrillako berdintasun zerbitzua
Ekintzaren helburua	Gorbeialdeko Kuadrillako udalerrietako jaien diagnostikoa, genero-ikuspegitik
Egindako ekoizkinak	Diagnostiko dokumentua gaztelaniaz Diagnostiko dokumentua euskaraz
Parte-hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> - Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua - Aramaioko Udaleko Kultura eta Kirol Saila - Zigoitiko Udaleko Kultura eta Kirol Saila - Legutioko Udaleko Kultura Arloa - Zurbanoko Junta Administratiboa - Murgiako Junta Administratiboa - Izarrako Lan eta Jolas Elkarte eta Jai Batzordea - Aramaioko Mugimendu Feminista - Izarrako Gazte Asanblada eta Jai Batzordea - Zurbanoko Gazte-taldea/Jai Batzordea
Erabilifako teknikak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuen berrikuspena - Banakako elkarrizketak - Taldeko elkarrizketa - Galdetegia
Elaborazioaren arduradunak	<ul style="list-style-type: none"> - Koordinazioa: Norma Vázquez - Landa-lana eta idazketa: Maialen Intxaurza eta Zalao Lafuente

HITZAURREA

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak, *Gorbeialdeko Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planean (2019-2022)*¹ jasotzen den bezala, konpromisoa hartzen du herriko jaietan genero-ikuspegia txertatuko dela bermatzeko. Konpromiso hori betetzeko, lehenik eta behin, diagnostikoa egin behar da, jaietako genero-harremanen osagai estrukturalak eta sinbolikoak aztertzeko, eta, ondoren, jai parekideak eta integratzaileak diseinatu eta gauzatzeko.

Herrietako jaietan, genero-harremanak agertzen dira kultura-adierazpenetan, erritualetan, harreman afektibo-sexualetan, sozializazioan, jantzietan eta abarretan. Jaia horiek herritarren arteko sozializaziorako eta bizikidetzarako gune tradizionala dira, baina, askotan, zapalkuntza- eta menderatze-eszenatoki bihurtzen dira emakumeentzat; agertokiak oharkabean igarotzen dira, hain zuzen ere, jaiak hondar-elementuak direlako eta karga sinboliko handia dutelako.

Euskal Autonomia Erkidegoan, jai batzuetan, emakumeek behin eta berriz jasan dituzte eraso fisikoak, psikikoak, sexualak, ahozkoak eta sinbolikoak, eta, horren ondorioz, Mugimendu Feministatik aldarrikapen garrantzitsua egin da, egoera horietako indarkeriarekin amaitzeko. Arabari dagokionez, nabarmentzekoak dira Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaiak, Amurrioko San Joan jaia eta Laudioko Inauteriak, urte luzez emakumeek diskriminazio-egoera etengabeak jasan baitituzte, Emakundek 2021ean argitaratutako azterlan baten arabera.

Dokumentu honetan, Gorbeialdeko Kuadrillako herrietako jaietan gertatzen diren genero harremanak atzemateko lana biltzen da. Era berean, jaietan egoera ahulenean dauden kolektiboen beharrak eta aisialdiko espazioetan eraso sexistak ahalbidetzen eta onartzen dituzten mekanismoak eta argudioak ezagutzeko balio izan du.

¹ Gorbeialdeko Kuadrillako emakumeen eta gizonen I. Berdintasun Plana. Eskuragarri hemen: [https://www.gorbeialdekokuadrilla.eus/publico/upload/3.%20Gorbeialdeko%20I.%20berdintasun%20Plana%20\(2019-2022\)%20%20_1.pdf](https://www.gorbeialdekokuadrilla.eus/publico/upload/3.%20Gorbeialdeko%20I.%20berdintasun%20Plana%20(2019-2022)%20%20_1.pdf)

Sortzen Consultoriako taldeak eskerrak eman nahi dizkie diagnostiko honetan parte hartu duten teknikari, politikari eta gizarte-eragile guztiei. Hala, espero dugu diagnostiko honek planteatutako helburuak beteko dituela eta Gorbeialdeko Kuadrillan berdintasunezko udal-jaiak egiten lagunduko duela.

Sortzen Consultoriako taldea

Azaroa, 2021

1. KONTZEPTU-ESPARRUA

1.1. Tokiko jaien garrantzia genero-ikuspegitik

Herrietako jaietan urtero egiten diren kultur ekitaldien bidez, komunitate batek sozializazioari buruz duten ikusmoldea adierazten du. Izan ere, Molések (2009) adierazten duen moduan, sozializazio-prozesuek pertsonak kultura nagusira ekartzea eragiten dute, eta horren arabera integratzen dira gizartean, elkarrekin erlazionatzen dira, gizarte horretan duten tokiaz jabetzen dira, etab. Beraz, jaietan egiten diren errituak belaunaldien artean egiten den ohitura-eskualdatzea eta hainbat eratako harremanetan egituratzen den tokiko identitatearen sorrera dakarte. Boterea (gizarte-hierarkiak, desberdintasunak eta ospe- eta autoritate-sistemak (Emakunde, 2021). Herri batean bertako kolektiboen artean dagoen soziabilitatearen isla dira.

Hala, jai herrikoiak, gizarte-adierazpen gisa, sexu- eta genero-desberdintasunak agertzen diren guneak ere badira. XIX. mendera jotzen badugu, mairuen eta kristauen ospakizunetan hiri-milizietako kide ziren gizonak baino ez zuten parte hartzen, eta 1960ra arte gizonak bakarrik parte har zezaketen *filas*-etan².

XX. mendearen hasieran, emakume ezkonduak bakarrik hartzen zuten parte konnotazio erlijiosoak hartzen zituzten jardueretan, jaien antolaketan eta etxeko lanetan, hala nola gizonen jantziak eta jaien janaria egiten eta prestatzen. Jai ospatzeko orduan, bakoiko jaien ikusle hutsak ziren, "Bakoiko festazaleak" deitzen zena. Oso bestelakoa zen Konpartsen Sarreretan desfileatzen zuten "Neska motzek", "Familia oneko nesken" garaiko ideala islatu behar zutenak: gazteak eta gizonezkoen desioak ezarritako edertasun-estereotipoa betetzen zutenak (Heuzé, 2003).

Euskadin, sozializazio maskulinoko eremuetan ospatu dira jaiak -hala nola elkarte gastronomikoetan eta kirol-elkarteetan, kofradietan, gremioetan edo elkarte militarretan-, eta emakumeek etxeko lanak edo jaien ikusle, laguntzaile edo bideratzaile lanak egiteko zeregina lortu dute (Emakunde, 2021). Jaiak, tradizioz, genero-desberdintasunean oinarritzen diren ekitaldiak dira, eta ospakizunaren banaketa sexuala non egiten den adierazten dute; izan ere, gizonak eremu publikoan eta ikusgarrienean dauden bitartean, emakumeak eremu pribatuan murgiltzen dira,

² Sarreretan (desfile militarretan) parte hartzen zuten hamar bat pertsonaz osatutako taldea.

eta ospakizunen prestakuntzan funtsezko zeregina dute, baina ekitaldi publikoetan ikusezin bihurtzen dira.

Hala, jai-giroan, feminitate-ereduak -"neskatila politarena" edo amarena, euskal testuinguruan "matriarka" esaten zaiona- eta maskulinitate-ereduak -hori "arraren" estereotipoari dagokio- sortzen dira (Farapi, 2009). Gaur egun, jai askotan tradizioa da nagusi, eta horrek genero-desberdintasuna eragiten du, jai horietan emakumeek erabateko gozamina izateko aukerarik eman gabe.


1.2. Jaietan hautemandako genero-desberdintasunen testuingurua

Hasiera-hasieratik, jai-giroa diskriminazio-eremua da emakumeentzat, eremu publikoaren antolaketa hainbat estereotipotan eta genero-roletan, gorputzen ikuskeran eta arriskuaren pertzepzioan oinarritzen baita (Rodo eta Estivill, 2016). Horrela, jaietako guneak nagusitasun- eta zapalkuntza-eremuak dira emakumeentzat, eta, horietan, herritarrek normalizatutako hainbat erasori egin behar diete aurre.

Indarkeria sexista behin eta berriz gertatzen den eszenatoki bati egin behar diogu aurre; emakumeen gorputzak etengabe erasotzen dira -modu fisikoan, sexualean edo sinbolikoan-, eta oso maskulinizatutako jai-korporazioek ezarritako genero-rolen ondorioz, emakumeek rol pasiboa hartzen dute.

Arestian aipatu bezala, indarkeria sexistaren kasuak (hitzezkoak, fisikoak, psikologikoak, sexualak eta sinbolikoak) etengabeak dira, kultura tradizionaletik eratorriak, jaien testuinguruan. Azterlan batzuek hirutan sailkatzen dituzte jaiegunetako emakumeen aurkako bereizkeria motak:

**1. Irudia: Emakumeen aurkako hiru diskriminazio-moten hipotesia jaigunetan,
Graciaren eta Rius-Ulldemolins-en arabera (2020)**



Iturria: geuk egina Gracia eta Rius-Ulldemolins-en (2020) artikulutik abiatuta

Ortnerren arabera (1979), kultura guztietan emakumeak gizonen azpitik daude nolabait. Antropologoa gertaera hori justifikatzen duten hiru datu motatan oinarritzen da. Alde batetik, emakumeei gizonei baino ospe txikiagoa ematen zaien ideologia kulturalaren elementuak, funtzio, zeregin, produktu eta gizarte-baliabide jakin batzuetan; eta bestetik, emakumeei gizonei ematen zaien gutxiagotasun-ezaugarriari dagozkion artifizio sinbolikoak. Azkenik, emakumeak gizarte-botereetatik kanpo uzten dituzten gizarte- eta egitura-antolamenduak.

Garrantzitsua da jaietako antolakundeez arduratzen diren erakundeek eta gizarte-taldeek genero-ideal heteronormatibo horiei aurre egiteko lan egitea, eta jai berdintasunezkoak eta integratzaileak sortzen laguntzea. Jarraian, Euskadin egin diren aurrerapen batzuk azalduko ditugu.

1.3. EAEn berdintasunezko jaiak lortzeko erakunde publikoetan hobetu beharreko alderdiak

Euskadin hainbat aurrerapauso egin dira emakumeek jaietan parte har dezaten lortzeko eta indarkeria sexista ezabatzeko. Hala, Eusko Legebiltzarrak EAeko **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu zuenetik**³, 25.1 artikuluan adierazten da euskal administrazio publikoek beharrezko neurriak hartu dituztela kultura-arloan emakumeek parte hartzeko eskubidea bermatzeko. Zehazki, artikulua horretan hauxe adierazten da:

“Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduerak guztietan. Debekatu egiten da emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.” (EHAA, 2005, 23. or.).

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, emakumeek kultura-ekintza guztietan parte hartuko dutela bermatzeaz gain eta emakumeen parte-hartzea oztopatzen ez duten ekintza guztiak debekatzeaz gain, eremu horretan sor daitezkeen eraso sexistak baztertzen dituzte. Foru mailan, bi foru arau daude gai honi buruz: Gipuzkoako Lurralde Historikoan, martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua⁴ eta Bizkaian, martxoaren 20ko 4/2018 Foru Araua⁵. Araban, prestatzen ari dira.

Gipuzkoako Foru Arauaren 46. artikulua honela dio:

“1. Gipuzkoako Foru Aldundiak kultura eta arte jardueren bere politika publikoetan genero ikuspegia txertatzea bultzatuko du, bere eskumenen arabera.

³ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

⁴ 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. Eskuragarri hemen: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/ogasuna/normativa/docs/0001052e.pdf>

⁵ Martxoaren 20ko 4/2018 Foru Araua. Eskuragarri hemen: [l-695_eus.pdf \(bizkaia.eus\)](https://www.gipuzkoa.eus/ogatasuna/normativa/docs/0001052e.pdf)

2. *Kultura politikaren esparruan funtzioak eta eskumenak esleitzen zaizkion Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak neurri hauek hartuko ditu:*
- a) *Emakumeak sormen kultural zein artistikoan jardutea bultzatzea, eta erabakiak hartzeko espazioetan emakumeen partaidetza bultzatzea.*
 - b) *Artearen eta kulturaren esparruan generoari lotutako gaiak lantzeko baliabide egokiak erraztea.*
 - c) *Jarduera kultural eta artistikoetan genero ikuspegia txertatzea bultzatzea.*
 - d) *Emakumeek kulturari eta arte jarduerari eginiko ekarpena nabarmentzea eta ikusaraztea." (GAO, 2015, 51. or).*

Alde batetik, emakumeen jarduera eta parte-hartzea sustatzen da kultura-bizitzan, baita erabakiak hartzeko guneetan ere, eta horrek emakumeen irudi aktiboa izatea ekarriko luke. Bestalde, generoarekin zerikusia duten alderdiak artean eta kulturaren lantzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatu behar dira.

Era berean, Bizkaiko Foru Arauaren 51. artikulua honako hau dio:

"1. Foru-arau honen helburuak lortzeko, honako neurri hauek hartuko dituzte kultura-jardueraren arloan eskumena duten foru-sektore publikoko sailek eta erakundeek:

- a) *Emakume anitzen presentzia ikusaraziko dute arte eta kulturaren adierazpenetan eta sorreran.*
- b) *Emakume anitzek iraganean eta gaur egun kulturaren arlo guztietan eginiko ekarpena ikusaraziko dute.*
- c) *Emakume anitzek egindako lan artistikoen eta kulturalen sorrera, ekoizpena eta zabalkundea sustatuko dute.*
- d) *Espazioak eta tokiak sortu edo erabilgarri jarriko dituzte emakume anitzek eginiko lan artistiko eta intelektualak erakutsi, ezagutarazi eta zabaltzeko.*
- e) *Eskaintza artistiko eta kultural publikoari dagokionez, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuko dute.*
- f) *Partaidetza orekatua sustatuko dute sektorean kudeaketa egiteko eta erabakiak hartzeko guneetan.*

2. *Kultura-jardueraren batean -jai kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalizazioaren arlokoak barne- sexu-diskriminazioa egiten bada, foru-sektore publikoak ezin izango dio jarduera horri inolako laguntzarik eman, eta haren ordezkariak ezin izango dute jarduerotan ordezkari gisa parte hartu. (BAO, 2018, 31. or.).*

Kasu honetan, gizonek eta emakumeek kultura- eta arte-ekintzetan modu orekatuan parte har dezaten sustatzeaz gain, sailek eta erakunde publikoek kultura- eta arte-bizitzan emakumeen aniztasuna -gaur egungoa eta historikoa- eta horien autonomia adieraztea aldarrikatzen da.

2021ean, Eusko Jaurlaritzak, Emakundek eta Berdinsareak (Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarea, EUDELeK sustatua) *Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Esparruko Udal Ordenantzaren Eredua* proposatu zuen. Horren 53. artikuluan ⁶ adierazten duenez, Euskadiko udalerririk bakoitzeko udalek ziurtatu egin behar dute tokiko jaiak egingo direla generoaren ikuspegitik, eta herritar guztiek jaietako jardueretan parte har dezatela eskatzen da, sexua, adina, jatorria, hezkuntza-maila, egoera ekonomikoa edo sexu-aukera diskriminatzeko arrazoirik izan gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundia aitzindaria izan da jaietan parte hartzen, 2009an EAeko jaietarako buruzko lehen diagnostikoa egin baitzuen generoaren ikuspegitik ⁷. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak beste ekintza batzuk egin ditu emakumeek jaietan berdintasuna eta parte-hartzea bultzatzeko, eta udaletako teknikarien eta politikarien artean eta jai batzordeetan parte hartzen dutenen artean berdintasunaren inguruko sentsibilizazio- eta hedapen-taldeak egin dira.

Bizkaian ibilbide luzea egin da arlo horretan, eta, 2012tik, Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak teknikarien eta politikarien arteko jaietan berdintasuna zabaltzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko prestakuntza eta lantegiak sustatu ditu.

Azkenik, Araban, 2012az geroztik, Berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritzak eta LAIA Eskolak hainbat jarduera egiten dituzte hainbat udalerritako jaietan berdintasunari buruz sentsibilizatzeko eta prestatzeko (EMAKUNDE, 2021).

⁶ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal ordenantzaren ereduak. Eskuragarri hemen: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/coediciones/eu_def/adjuntos/ordenanza_marco_eu.pdf

⁷ Lurralde historikoko jaietarako buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik. Eskuragarri hemen: [\(Microsoft Word - An\341lisis de las fiestas del THG desde una perspectiva de g\351nero REDEFINITIVO.doc\) \(alardepublico.org\)](#)

Laburbilduz, azken urteotan EAEn hainbat aurrerapauso egin direla ikus dezakegu, herriko jaietan aldaketak eragiteko eta gero eta berdinoak bihurtzeko. Hala ere, bistan da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunek eta eraso sexistek beren horretan jarraitzen dutela tokiko jaietan, eta horrek gogoeta gehiago egitera garamatza erakunde publikoetatik berdintasun-konpromisoa sakonago landu beharraz.

Horretarako, bi alderdi izango lirateke funtsezkoak; alde batetik, ulertzea tradizioa testuinguru historiko batean oinarritzen dela, non emakumeak esparru pribatuan mantentzen baitziren; beraz, beharrezkoa da tradizio hori zalantzan jartzea eta aldatzea, gaur egun, Mugimendu Feministaren ahaleginei esker, emakumeak ere bizitza publikoaren parte baitira. Bestalde, herri-administrazioek eta jaiak antolatzen diharduten gizarte-eragileek jendaurrean adierazi behar dute ez dutela onartzen dibertimenduaren izenean irain sinbolikoak edota eraso zehatzak egitea emakumeen eta heteronormatasuna eteten duten pertsona guztien aurka, aniztasuna ospatzen den jaiak egiteko eta herritar guztien berdintasuna eta segurtasuna bermatzeko.

2. HELBURUAK

2.1. Helburu orokorra

Tokiko jaien diseinuan eta gauzatzean aurrera egitea, generoaren ikuspegitik, Gorbeialdeko Kuadrillako herrietan egiten diren ospakizun guztietan emakumeen gozamen berdintasuna bermatuz.

2.2. Berriazko helburuak

1. Gorbeialdeko Kuadrillan egiten diren jaien ezaugarriak ezagutzea, arreta berezia jarritz gizonen eta emakumeen rolei eta aisialdiko espazioetako genero-harremanei buruzko elementu estruktural eta sinbolikoetan.
2. Kuadrillako gizonak, lehentasunez, berdintasunezko jaiak egitea mugatzen duten jarrera eta portaeren inguruan sentsibilizatzea.
3. Gorbeialdeko Kuadrillako udalerrietako elkarte-sarea eta teknikariak eta politikariak inplikatzea berdintasunaren aldeko eta aniztasuna ospatzeko jaien diseinuan.

3. METODOLOGIA

Proposatutako helburuak lortzeko metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili dira.

Aurreiazko akordioak: diagnostikoa egiten hasi aurretik, bilera bat egin zen Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasunerako teknikariarekin, eta bertan zehaztu ziren ikertu beharreko jaiari buruzko dokumentazioa -azken urteotako jaien programazioa, esaterako-, elkarrizketatu beharreko langileak eta inkesta egin behar duten biztanleak. Azterlanaren ardura duen aholkularitzaren eta berdintasunaren teknikaren arteko harremanetarako mekanismoa adostu zen, prozesuan sor litezkeen zalantzak edo elementu berriak argitzeko.

- **Dokumentuen berrikuspena:** Kultura Teknikariren batek eta Junta Administratiboko, Jai Batzordeetako eta elkarteetako kideek emandako dokumentuak aztertu ziren (ikus 1. Eranskina).

- **Inkesta:** diagnostikoan aztertutako udalerrietako herritarrei inkesta anonimoa egin zitzaion. Horretarako, Google Forms-en inprimaki bat sortu zen euskaraz eta gaztelaniaz, eta Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak zabaldu zuen udalerrietako udalen web orrien, WhatsAppen eta posta elektronikoaren bidez. Inkesta honen helburua Gorbeialdeko Kuadrillako herrietako jaietako biztanleen eta, batez ere, emakumeen bizipenak ezagutzea izan da.

- **Elkarrizketak:** taula honetan banakako 8 elkarrizketen banaketa eta aztertutako jaietako langileei eta gizarte-eragileei egindako talde-elkarrizketa ageri dira. Guztira, 9 emakumek eta gizon batek hartu zuten parte.

Deigarria da emaitza hori; izan ere, diagnostiko honetan gizonen parte-hartzea sustatzeko eta errazteko ahaleginak egin arren, ez zen bereziki interesgarria izan gizonentzat; beraz, bildutako iritzi gehienak emakumeenak izango dira. Diagnostikoaren emaitzen aurkezpenean garrantzitsua izango da sexuaren arabera parte-hartze orekatuagoa egotea.

**1. Taula: Teknikariek eta gizarte-eragileekin egindako elkarrizketak eta eztabaida-
taldeak**

TEKNIKARIAK ETA GIZARTE AGENTEAK	EGINDAKO ELKARRIZKETAK			
	Banakakoak		Taldekoak	
	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona
Zigoitiko Udala (Zigoitiko Udaleko Kultura teknikaria)	Parte-hartzaile 1			
Aramaioko Udala (Aramaioko Udaleko Kultura teknikaria)	Parte-hartzaile 1			
Legutioko Udala (Legutioko Udaleko Kultura teknikaria)	Parte-hartzaile 1			
Izarrako Jai Batzordea (Lan eta Jolas Elkarteko lehendakaria eta Jai Batzordearen arduradun nagusia)	Parte-hartzaile 1			
Murgiako Junta Administratiboa (Fiel de Fechos)	Parte-hartzaile 1			
Zurbanoko Junta Administratiboa (Lehendakaria)		Parte-hartzaile 1		
Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua (Berdintasun-teknikaria)	Parte-hartzaile 1			
Izarrako jaietako gizarte-eragileak (Gazte Asanbladako eta Jai Batzordeko kidea), Zurbanokoak (Zurbanoko Gazte Taldeko/Jai Batzordeko kidea)			2 parte-hartzaile	
Aramaioko Gizarte Eragilea (Aramaioko Mugimendu Feministako kidea)	Parte-hartzaile 1			
PARTE-HARTZAILEAK	7	1	2	0

Elkarizketetan, jaien antolaketari buruzko informazioa jaso zen, bai eta langileen eta gizarte-eragileen arteko berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko ezagutza ere. Horrez gain, udal-langileen eta herritarren artean bultzatutako sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzak, eraso matxistei aurre egiteko metodoak eta prebentzio-neurriak edota kasu horiei emandako erantzun publikoa aztertu ziren. Bi izan ezik, elkarrizketa guztiak euskaraz egin ziren.


4. GORBEIALDEKO KUADRILLA, GEOGRAFIA- ETA BIZTANLERIA-DATUAK

Gorbeialdeko Kuadrilla Arabako lurralde historikoan dago, eta bi paisaia-eremutan banatuta dago: Gorbeia Inguruetako eta Aramaio Haraneko natura-eremua, Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia, Zuia eta 53 kontzejuek osatua. Eskualdeak 494km² inguru ditu eta 9.782 biztanle, 4.626 emakume eta 5.156 gizon. Horrek esan nahi du Kuadrillako emakumeak biztanleria osoaren % 47 direla.

Sexuari eta adinari dagokienez, 1. grafikoan ekonomikoki garatuta dauden herrialdeetako ohiko biztanleria-piramide erregresiboa ageri da, non biztanleria zahartua nagusi den. Hain zuzen ere, 65 urtetik gorako biztanleak % 19,8 dira emakumeen artean eta % 18,6 gizonen artean. Kasu horretan, nabarmentzekoa da bigarren adin-talde adierazgarriena 0-14 urteko gazteena dela (% 14,4, bai emakumeen artean, bai gizonen artean).

1. Grafikoa. Gorbeialdeko Kuadrillako biztanleria-piramidea, sexuaren arabera. 2020.


Ehunekoak. N=9.782



Iturria: Guk egina INE 2020ren datuetan oinarrituta

Migratutako biztanleriari dagokienez, Gorbeialdeko Kuadrillako populazio osoaren % 5 dira.


2. Grafikoa. Gorbeialdeko Kuadrillako biztanleria osoaren banaketa, jatorriaren arabera. 2020. Ehunekoak. N=9.782



Iturria: Guk egina INE 2020ren datuetan oinarrituta

Migratutako biztanleria sexuaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu emakume migratuak biztanleriaren % 2,5 direla. Aldi berean, gizon migratuak % 2,6 dira.

3. Grafikoa. Gorbeialdeko Kuadrillako biztanleria osoaren banaketa, jatorriaren eta sexuaren arabera. 2020. Absolutuak. N=9.782



Iturria: Guk egin INE 2020ren datuetan oinarrituta

5. GORBEIALDEKO KUADRILLAKO JAIEN EZAUGARRIAK

Jaiak hobeto ezagutzeko eta jaietan genero-ikuspegia hobeto garatzeko, eskualdeko berdintasunerako teknikariari elkarrizketa egin zizaion, oso garrantzitsutzat jo baitziren gai horri buruzko esperientziak eta iritziak.

5.1. GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BERDINTASUN ZERBITZUA

5.1.1. Aurrekariak

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua 2017. urtean sortu zen, eta orain arte bi berdintasunerako teknikaririk osatu dute. Ere horrek *Gorbeialdeko Kuadrillako emakumeen eta gizonen I. Berdintasun Plana (2019-2022)* du, eta, eskualde osorako plana izateaz gain, udalerrri bakoitzerako atal berezi bat ere badu.

Testuinguru horretan, 2018an, *Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko Erakundeen arteko I. Koordinazio Protokoloa* sortu zen, eta bertan hainbat arreta-zerbitzu (Osakidetza, Ertzaintza, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua) eta eskualdeko politikariak sartzen dira. Hala ere, nahiz eta Osakidetzak sinatu gabeko protokoloa izan, zerbitzuen arteko bilerarik deitu gabe, indarkeria-kasu bat dagoen guztietan aplikatzen da, eta barnean, zerbitzuen arteko koordinaziorako.

Gorbeialdeko Kuadrillaren webgunean ⁸ ikus dezakegun bezala, *Gorbeialdeko Kuadrillako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken ebaluaketa eta diagnostikoa* eta *Gorbeialdeko Kuadrillako emakumeen eta gizonen I. Berdintasun Planaren* triptikoa ere egiten dira zerbitzuan. Web orrian bertan adierazten den bezala, gaur egun Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Saila berdintasuna sustatzeko eta Kuadrillako udalen eta udalerrien artean berdintasun handiagoko gizarte lortzeko zerbitzua da. Horrela, helburu hauen arabera egiten du lan:

- Genero-ikuspegia udal-politika publikoetan txertatzea (araudia, diru-laguntzak eta hitzarmenak, aurrekontuak eta plangintza, hizkera ez-sexista, etab.).
- Erakunde publikoen diru-laguntzen deialdiak kudeatu eta garatzea.
- Emakumeen berdintasunaren eta ahalduen inguruko ekintzak gauzatzea.
- Ikastetxeei, zentro soziokulturalei, liburutegiei, gaztelekuei, ludotekei eta abarri tresnak eta baliabideak ematea.
- Emakumeen elkarrekin mugimendua eta Mugimendu Feminista sustatzea, baita elkarrekin parte hartzea ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria-motak ezagutzeko sentsibilizazio-ekintzak egitea, hainbat biztanleria-talderentzat: emakumeak, gizonak, gazteak, etorkinak...
- Zerbitzu honen lana kuadrilla estrategia baten arabera zuzenduko duten eta bere lanari koherentzia emanen dioten azterlanak, protokoloak eta berdintasun planak egitea.
- Indarkeriaren prebentzioa eta aholkularitza.

⁸ Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua. Eskuragarri hemen: <https://www.gorbeialdekokuadrilla.eus/eu/kuadrillaren-zerbitzuak/berdintasuna.html>

5.1.2. Zerbitzuaren eragina jaietan

Aurrerago zehaztuko den moduan, jaiak Udalek antolatzen dituzte kasu batzuetan, eta Jai Batzordeek beste batzuetan. Bi kasuetan, berdintasun teknikariaren eginkizuna da antolakuntza horretan parte hartzea eta berdintasuna sustatzeko eta indarkeria prebenitzeko ekintzak proposatzea, baita genero-ikuspegitik desegokia den mezu edo jardueraren bat atzemanaz gero, orientatzea.

Berdintasun Zerbitzuak berdintasunaren eta indarkeria matxistaren sentsibilizazio eta prebentzioaren arloko prestakuntza espezializatuak bultzatu ditu Kuadrillako udaletako teknikari eta politikarien artean. Zehazki, udal guztietako teknikariek eta politikariek 4 orduko prestakuntza egin dute berdintasunerako politika publikoak diseinatu, ebaluatu eta kudeatzeko, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzeko 3 ordukoa, eta berdintasunerako eta indarkeria matxistaren prebentziorako politikei buruzko beste 10 ordukoa. Udaletako idazkariek eta kontuhartzaileek berdintasun-klausulei, kontratuei eta diru-laguntzei buruzko prestakuntza jaso dute; hirigintzako langileek genero-mainstreamingari buruzko prestakuntza egin dute.

2021ean Zigoitiko eta Zuiako politikariek 8 orduko bi prestakuntza-saio jaso dituzte genero-berdintasunari eta indarkeria matxistaren prebentziorari buruz. Gorbeialdeko politikari batzuek ere parte hartzen dute Virginia Woolf BASQUESKOLAKO⁹ hitzaldi eta jardunaldietan.

Kuadrillako Berdintasun Teknikariaren arabera, oro har, ez da antzematen teknikarien, politikarien eta elkarten arteko berdintasunaren aurkako jarrerarik, baina arlo horretan ezjakintasun handia antzematen da eta, eta horrek zaildu egiten du emakumeen eta beste kolektibo ez-heteronormatibo batzuen artean desberdintasuna eta diskriminazioa eragiten duten egoerak hautematea. Horregatik, oso positiboa eta garrantzitsua da Mugimendu Feministaren lana eta eragina Gorbeialdeko Kuadrillan ikuspegi feminista txertatzeko.

⁹ Virginia Woolf BASQUESKOLA tokiko emakume hautetsientzako gunea da, Euskadiko Udalen Elkarateak (EUDEL) eta Emakumearen Euskal Erakundeak (EMAKUNDE) sustatua. Eskuragarri hemen: <https://www.eudel.eus/destacados/basqueskola/?lang=eu>

Berdintasun Zerbitzuak adierazi du beharrezkoa dela jaiak antolatzen dituzten langileekin genero-ikuspegia txertatzen sakonago lan egitea eta jaietan indarkeria matxistaz sentsibilizatzea eta prebenitzea, eta Jaietako Batzordeekin lankidetzaz estuagoa izatea komeni dela, langile teknikoekiko koordinazioa areagotuz, bereziki jaien antolaketan parte hartzen dutenekiko koordinazioa.

5.1.3. Eraso matxistak jaietan eta erantzuna Berdintasun Zerbitzutik

Gorbeialdeko Kuadrillako udal eta kontzejuetan ez da ezagutzen eraso matxistarik jaietan, baina bai jaien testuingurutik kanpo. Hala ere, kasu horietarako, *Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko Erakundeen arteko I. Koordinazio Protokoloa* eta eraso publikoki salatzeke adierazpen instituzionala daude. Hala, protokoloa abian jartzean, indarkeria matxistaren kasua kontrastatzen da, eta, betiere eraso jasan duen emakumearen iritzia errespetatuz, Mugimendu Feministarekin egin beharreko erantzun publikoa adosten da: kontzentrazioak, indarkeria matxistaren aurkako jarrera adierazten duten pankartak, etab.

Oro har, oso positiboa da Gorbeialdeko Kuadrillako erantzun publikoari buruz egiten den balorazioa.

5.2. AZTERTUTAKO JAIAK

Azterlan honetan Gorbeialdeko Kuadrillako 6 jai nagusi aztertu dira: Murgiako San Migel jaiak, Zigoitiko Eguzki Jaia, Izarrako Jaiak, Aramaioko San Martin jaiak, Legutioko kofradien jaiak eta Zurbanoko San Esteban jaiak.

Horrela, azterketa sakonagoa egiteko eta jaien errealitatera hurbiltzeko, banakako 6 elkarrizketa egin zaizkie antolakuntzan parte hartzen duten langileei. Era berean, aktiboki parte hartzen duten gizarte-eragileekin taldeko eta banakako elkarrizketa egin zaie. Kontuan hartu behar da elkarrizketatutako gizarte-eragileak Izarra, Zurbano eta Aramaioko jaietakoak direla, eta ez dagoela diagnostiko honetan aztertzen diren tokiko jai guztietan parte hartzen duten gizarte-eragileei buruzko informaziorik. Era berean, herritarrek lortutako inkestetan jasotako emaitzak 10 baino ez dira izan, eta, beraz, lagin orientagarria da, ez adierazgarria.

2. taulan ikus daitekeenez, Gorbeialdeko Kuadrillako jaiak izaera soziokulturalekoak dira, biztanleen sozializazioa indartzeko. Gainera, uztaileko eta iraileko udako aldietan egiten dira. Sasoi horietan, data horien ezaugarri den eguraldi onak eta oporraldiek (ikasle- eta lan-garaiek) herritarren parte-hartzea areagotu dezakete. Horrela, jaiak udalerriko toki adierazgarrietan ospatzen dira, eta Aramaio eta Zurbanoren kasuan ere udalerrri osoan egiten dira.

Jaiak antolatzeari dagokionez, Murgia, Izarra eta Zurbanoren kasuan izan ezik, gainontzeko jai guztiak udalek antolatzen dituzte. Hala, erabilitako metodologiaren artean, jarduerak eztabaidatzeko eta antolatzeko bilerak nabarmentzen dira. Kasu guztietan, udalerrietako elkarteek eta, oro har, biztanleek parte hartzeko aukera dute. Gainera, Izarrako jaien kasuan, herritarrei Jai Batzordeak egiten duen bileran gonbit egiten zaie, eta Aramaiokoetan, udalak online galdetegi bat ematen du herritarrek, elkarteek eta talde feministek jardueri buruz iritzia eman eta erabaki dezaten. Hain zuzen ere, Zurbanoko gazteek, Gazte Asanbladak eta Izarrako Jai Batzordeak adierazi dute neurri batean jaietarako jarduerak antolatzeko ardura dutela eta horretarako askatasuna dutela.

2. Taula: Aztertutako jaien ezaugarriak

JAIK	JAIAREN IZAERA (HASIERA/GAURKOTASUNA)	NON EGIN DEN	HASIERA- ETA AMAIERA-DATAK	ERAKUNDEKO ARDURADUNAK	LAN EGITEKO MODUAK
Murgiako San Migel Jaiak	<ul style="list-style-type: none"> San Migeleko zaindariaren omenez da, baina gaur egun ez da jai erlijiosotzat hartzen. 	<ul style="list-style-type: none"> Murgiako Kontseiluko Udaletxeko plazaren inguruak (Zuia). 	<ul style="list-style-type: none"> Iraileko azken asteburua. 	<ul style="list-style-type: none"> Murgiako Junta Administratiboa, Murgiako elkarte eta gazteen partaidetzarekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez dago lan modu zehatzik, baina kontuan hartzen dira herritarren eskaerak.
Zigoitiko Eguzki Jaiak	<ul style="list-style-type: none"> Elkarte soziokultural batek bultzatu zituen hastapenak. Gaur egun, izaera soziala du populazioaren sozializazioa indartzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Ondategi eta Gopegiko kontzejuak (Zigoitia). 	<ul style="list-style-type: none"> Uztailako azken asteburua. 	<ul style="list-style-type: none"> Zigoitiko Kultura Batzordea (kulturako teknikariek, politikariek eta kirol- eta kultura-elkarteek osatua). 	<ul style="list-style-type: none"> Batzordearen bi bilera: <ol style="list-style-type: none"> Aurreikusitako jarduerak baloratu eta eztabaidatzea. Jarduerak antolatzea.
